



Mindegi iraunkorra

Prestakuntzarako ihardunbideak - Ordenan jarri

Joanba Bergara

Irakasleen prestakuntzarako saioetan, anitz dira inputa edo edukiak lantzeko eskura ditugun prozedurak. "Prestakuntzarako ihardunbideak" izenpean ZUTABE argitara ematen ari den lantxoan bidez, prozedura zenbaitekin aprobak egiteko egokiera eskaini nahi zaizu. Bildumako bestgarrena da oraingoa.

Sarrera

Ez ote du merezi, aldizka bederen, geure prestakuntzarako saioetan euskara-ikasleei eginarazten dizkiegun ariketa zenbaitez baliatzeak? Bai, ezbairik gabe, nere aburuz. Horrexegatik, aurrekoetan bezala oraingoa ere, uste horren haritik, mindegi berri hau beste teknika bat jorratzera dago emana, *Ordenan jarri* deritzana.

Mindegiotan, dakizunez, irakasprozedura heuristikoez baliatuz, esperientzia bidez eta aurkikuntzak geure kabuz eginez bultzatu nahi dugu ikastera geure burua. Eta ez bakarka, lantaldean arituz baino. Taldea lanean iharduteko euskarri finko eta sendo gerta baitaiteke, alde batetik; eta aurkikuntz bide aparta, bestetik. Gogoratu, azkenik, bilduma honetan funtsezko aztergaia zenbait teknika edo prozeduraren "azalpena egitea" bada ere, halabeharrez bestelako eduki-sortari ere helduko diogula, glotodidaktikako berezko ezagutza-bildumari alegia. Eta banan-banan jorratzen ari garen teknika edo prozedurak, hain zuzen, katebegiak besterik ez direla, eta prestakuntzarako saioetan elkarri lotu beharko dizkigula, behar bezala lotu ere.

.1

Zerrendatu ezkerretako zutabeen "ordenan jarri" eragiketa ezaugarri duten adibide zenbait; ez nolana hikoak, zeuk erabilitakoak baino. Eta eskuinekoan azaldu zertarako erabili dituzun.

"Ordenan jarri" ariketak	Zertarako

**Mindegia
bideratzeko
iradokizunak**

- 1 Hainbat hizkuntz ariketatako ezaugarri dugu "ordenan jarri" eragiketa. Ziur zeuk ere behin baino gehiagotan eginarazi diezula ikasleei mota honetako ariketaren bat. Bete .1 fitxa. Amaitu ostean, lankideekin bildu eta eman elkarri emaitzen berri. Gero, aurrera jo aurretik, honako galderari erantzun: Zer dute amankomunean arestian zerrendaturiko ariketek?
- 2 *Entzuketa-drilla*
 - a. Egin ezazu .2 fitxako **A** ataleko ariketa. Bukatutakoan, lankideekin bildu, emaitzak alderatu eta ondorio batera iritsi.
 - b. Egin ezazu .2 fitxako **B** ataleko ariketa. Bukatutakoan, lankideekin bildu, emaitzak alderatu eta ondorio batera iritsi.
- 3 *Entzumena lantzen*
 - a. Entzute-ariketak egitean zein da zure bide metodologikoa? Azaldu zeintzuk diren egiten dituzun urrats horiek.
 - b. Lankideekin bildu eta bide metodologikoak alderatu. Norberaren segida metodologikoa azaltzearekin bat erantzunak arrazoitu. Saiatu guztion artean "eredu" metodologiko egoki bat antolatzen.
 - c. Egin .3 fitxa. Bukatu ostean, lankideekin bildu, emaitzak alderatu eta ondorio batera iritsi.

.2

A atala

Esaldi-eredu bat argitu nahi izanez gero, Harmer-ek (1983: 57) proposaturiko eskemari jarraiki egin dezake hori irakasleak. Ondoren duzu Harmer-en aipatu eskema, baina bertoko urratsak nahasirik. Ordenan jartzen saiatu.

Distortsioa → Isolaketa → Irakaslearen eredia →
Irakaslearen eredia → Elementu isolatura itzuli.

B atala

Entzuketa-drillaren adibidea duzu ondorengoa, baina urratsak nahasian lehen bezala. Ordenan jarri.


- "Irundik"
 - "Irun...dik; Irun...dik"
 - "Terra Irundik 9.45etan irteten da" (bi aldiz)
 - "Terra Irundik 9.45etan irteten da"
 - "Irundik... Irundik"
-
-

.3

Hauexek dituzu irakasle batek bi entzute-ariketez osaturiko entzumen-saio bateko urratsak nahasian. Zein da, zure ustez, egin duen bidea. Urratsak ordenan jarri.

- Irakasleak klaseak 1. atazan izandako emaitzak aztertzen ditu.
 - Testu osoaren edo zati baten 2. entzuketa; eta ikasleek 2. ariketa egiten dute.
 - Irakasleak 2. ariketa ematen die.
 - Pasartearen edo zati baten lehenengo entzuketa; ikasleek 1. ataza egiten dute.
 - Ikasleek binaka edo talde txikitan 1. ariketa aztertzen dute.
 - Irakasleak ariketa aurkezten du: egoera zeratu, zer testu-mota espero den (telefonozko elkarrizketa, irrati-emanaldia, iragarkia...) azaldu, etab.
 - Irakasleak 1. ariketa ematen die.
 - Irakasleak testuaren mamia ulertzea galeraz dezakeen hizkuntz item-multzoa ikasleek ezagutzen duten egiaztatzen du. Eta ez badakite, irakatsi egiten die.
 - Entzun aurreko ariketak ikasleak motibatu, berauen arreta bideratu eta ariketa errazteko.
 - (Aukeran) Entzuteko pasarte ariketa gehiago egiteko oinarri gisa erabili.
 - Ikasleek binaka edo talde txikitan 2. ariketa aztertzen dute.
 - Irakasleak klaseak 2. atazan izandako emaitzak aztertzen ditu.
-

.4



Elkarrekin lotu .3 fitxako urratsak (B) eta entzute-ari-ketak egitekoak (A)

d. .3 fitxan azalduko urratsak lau etapara bil daitezke. Zeintzuk dira, zure ustez, etapa edo une horiek? Ba al da alderik orain idatzitakoaren eta goiko a. eta b. unean aipatutakoaren artean? Lankideekin bildu eta emaitzak alderatu.

e. *Elkarrekin lotu.*- Egin .4 fitxa. Bukatu ostean, lankideekin bildu eta emaitzak alderatu.

4 Hausnarketa

a. Alderatu mindegian egin dituzun ariketak. Zein izan da eztabaidarako emankorrena? Zerk eragin du eztabaida?

b. *Ariketen zailtasuna.*- Erraz burutu al dituzu ariketak ala zailtasunik izan al duzu? Zehaztu zailtasun-iturri horiek.

c. *Prozesuari erreparatu.*- Erreparatu une batez ariketak egiterakoan zuk jarraitu prozesuari. Zergatik egin duzu bide hori?

5 Zuek zeuek sortu

“Ordenan jarri” ariketa sortzeko aukera duzu orain. Launaka burutu egitekoa; edo binaka, lagun asko izan ezean. Laukote/bikote bakoitzak arlo (topiko) bat jorratuko du; ezberdina bada, askozaz hobeto.

Egitekoa burututakoan, taldeek prestatutako fitxak elkartrukatu eta bertoko ariketak burutuko dituzte.

6 Hausnarketa

a. Zer-nolako gorabeherak izan dituzue 5 puntuko egitekoa burutzeko orduan?

b. Zer irizten diozue teknikari? Gure prestakuntzarako balio ote du? Eta zer diozu teknikaren ekonomiaz?

- c. Noiz, zergatik eta zertarako erabili teknika? Inputa aurkezteko / inputa lantzeko / inputa birpasatzeko / gai jakin baten inguruko ezagutza zenbaterainokoa den neurtu edo aztertzeko? Beste edozertarako?
- 7 *Aldaerak.*- Mindegian jorraturiko teknikari ukitu zenbait emanez gero, litekeena da aldaera berriren bat aurkitzea. Horretan saiatu. Ostean, lankideekin bildu eta eman elkarri aldaeren berri.
- 8 *Gaiak.*- Zerrendatu teknika honen bidez zuen artean egoki azter daitzekoen gai batzuk eta eskura izan behar zenituzketen baliabideak.
- 9 *Teknika euskara-ikasleekin.*- Azkenik, zein egiteko gertatu zaizue errazago: 2 eta 3. puntuetakoa ala 5ekoa? Zergatik? Ba al du horrek eraginik gure ikasleei begira, eskolan ere mindegian jorraturiko teknikaz behar bezala baliatzeko? Zeintzuk dira, zure ustez, teknika honi behar adina etekin ateratzeko kontuan hartu beharreko puntuak?

Aipua

ching. Harlow: Longman.

Harmer, J. 1983. *The Practice of English Tea-*